

MADRILGO AUTONOMI ELKARTEA

ERABAKIA, 1994ko azaroaren 7koa, Garraio Kontseilaritzako Idazkaritza Tekniko Nagusiarena, honekin batera ematen den eraskinean aipatu eta garraio arlokoak diren zigor-erabakiak argitara ematen dituena.

166

COMUNIDAD AUTONOMA DE MADRID

RESOLUCION de 7 de noviembre de 1994, de la Secretaría General Técnica de la Consejería de Transportes, por la que se procede a la publicación de las Resoluciones sancionadoras en materia de Transportes que se relacionan en el Anexo adjunto.

166

Xedapen Orokorrak**JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA****36**

1/1995 DEKRETUA, urtarrilaren 3koa, Euskal Autonomi Elkartearen Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituena eta horien egitekoak eta ihardun-arloak finkatzen dituena.

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 8 c) atalean aitortzen zaizkidan ahalmenez baliatuz, hauxe

XEDATU DUT:

1. *atala.* - Xedea.

Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioaren egitura osatzen duten sailak eta beren egiteko eta ihardun-arloak finkatzea da dekretu honen xedea.

2. *atala.* - Administrazioaren egitura.

Honako sail hauek izango ditu Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioak:

- a) Ogasun eta Herri Administrazio Saila
- b) Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila
- c) Herrizaingo Saila
- d) Industri, Nekazaritza eta Arrantza Saila
- e) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
- f) Osasun Saila
- g) Kultura Saila
- h) Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila
- i) Garraio eta Herrilan Saila
- j) Merkataritza, Kontsumo eta Turismo Saila

Disposiciones Generales**PRESIDENCIA DEL GOBIERNO****36**

DECRETO 1/1995, de 3 de enero, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos.

En virtud de las facultades que me atribuye el artículo 8, c) de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno,

DISPONGO:

Artículo 1. - Finalidad.

Es objeto del presente Decreto la determinación de los Departamentos en los que se estructura la Administración de la Comunidad Autónoma y de las funciones y áreas de actuación de los mismos.

Artículo 2. - Estructura de la Administración.

La Administración de la Comunidad Autónoma se organiza en los siguientes Departamentos:

- a) Hacienda y Administración Pública.
- b) Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social.
- c) Interior.
- d) Industria, Agricultura y Pesca.
- e) Educación, Universidades e Investigación.
- f) Sanidad.
- g) Cultura.
- h) Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente.
- i) Transportes y Obras Públicas.
- j) Comercio, Consumo y Turismo.

3. atala. – Sailen lehentasun hurrenkera.

Sailen lehentasun hurrenkera aurreko atalean ezarritakoaren arabera izango da:

4. atala. – Jaurlaritzaren Lehendakaritza.

1. Autonomi Estatutuak, Jaurlaritzaren Legeak eta legezko beste xedapen batzuk lehendakariari ematen dizkioten egitekoak bete ahal izateko, Jaurlaritzaren Lehendakaritzako organoen laguntza izango du lehendakariak. Jaurlaritzaren Lehendakaritzaren egitura eta egitekoak dekretu-bidez zehaztuko dira. Jaurlaritzaren Lehendakaritzak honako eginkizun hauek izango ditu:

- a) Jaurlaritzaren bozeramailetza.
- b) Gizarte eta erakunde harremanak.
- c) Análisi eta komunikazioa.
- d) Emakumea.
- e) Kanpo harremanak.

2. Emakumearen Euskal Erakundea / Instituto Vasco de la Mujer administrazio mailako erakunde autonomoa eta Interbask, S.A. baltzu publikoa, Jaurlaritzaren Lehendakaritzari atxikita daude.

3. Jaurlaritzaren Lehendakaritza Sailtzat joko da aurrekontu ondorioetarako. Administrazioaren koordinaiziorako eta arazoizkotasunerako eginkizunak eta antzeko beste batzuk garatzeko ezarri diren sailarteko organo kolegiatuetan ordezkaritza izango du.

5. atala. – Jaurlaritzaren Lehendakariordetza.

Lehendakariordeari aitor dakizkion eskuduntzak direnak direla, ondoren zehazten diren egiteko eta ihardun-arloak dagozkio Jaurlaritzaren Lehendakariordetzari:

- a) Jaurlaritzaren Idazkaritza.
- b) Legebiltzarrarekiko, Arartekoarekiko eta beste instituzioekiko harremanak eta komunikazioak.
- c) Autonomi garapenerako politika eta, xede horretarako, sailen iharduerak koordinatzea.

d) Autonomi Estatutuaren defentsa juridikoa.

e) Legezketasunaren barne kontrol eta aholkularitza juridiko orokorreko egitekoak gauzatzea.

f) Eusko Jaurlaritza eta bere organoak auzietan ordezkatu eta defenditzea.

g) Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria.

6. atala. – Egitekoak eta ihardun-arloak banatzea.

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legeko 8. eta 16. atalean lehendakariari eta Jaurlaritzari egozten zaizkien eskuduntzen eta lehendakariordeari gaineratzen zaizkion eskuduntzen kaltetan gabe, 2. atalean aipatzen diren sailek, hurrengo atalean zehazten diren egitekoak burutuko dituzte euren titularren ardurapean eta dagozkien ihardun-arloetan.

7. atala. – Ogasun eta Herri Administrazio Saila.

1. Honako egiteko eta ihardun-arlo hauek dagozkio Ogasun eta Herri Administrazio Sailari:

a) Euskal Autonomi Elkartearen Aurrekontu Orokorrak zuzendu, landu, kudeaketa orokorra egin, eta bai

Artículo 3. – Orden de precedencia departamental.

El orden de precedencia de los Departamentos se ajustará a lo establecido en el artículo anterior.

Artículo 4. – Presidencia del Gobierno.

1. Para el ejercicio de las funciones que le atribuyen el Estatuto de Autonomía, la Ley de Gobierno y otras disposiciones legales, el Lehendakari estará asistido por los órganos integrados en la Presidencia del Gobierno, cuya estructura y funciones se determinarán mediante Decreto. Se asignan a la Presidencia del Gobierno las siguientes áreas de actuación:

- a) Portavoz del Gobierno.
- b) Relaciones sociales e institucionales
- c) Análisis y comunicación.
- d) Mujer
- e) Acción exterior.

2. Están adscritos a la Presidencia del Gobierno el organismo autónomo administrativo Emakumearen Euskal Erakundea / Instituto Vasco de la Mujer y la sociedad pública Interbask, S.A.

3. La Presidencia del Gobierno tendrá la consideración de Departamento a efectos presupuestarios y podrá dársele representación en órganos colegiados de carácter interdepartamental establecidos para el desarrollo de funciones de coordinación y racionalización administrativas y otros análogos.

Artículo 5. – Vicepresidencia del Gobierno.

Sin perjuicio de las competencias que se asignen a su titular, corresponden a la Vicepresidencia del Gobierno las siguientes funciones y áreas de actuación:

- a) La Secretaría del Gobierno.
- b) Las relaciones y comunicaciones con el Parlamento y el Ararteko e interinstitucionales.
- c) La política de desarrollo autonómico y la coordinación, a tal efecto, de las actuaciones de los Departamentos.

d) La defensa jurídica del Estatuto de Autonomía.

e) El ejercicio de las funciones de control interno de legalidad y asesoría jurídica general.

f) La representación y defensa en juicio del Gobierno Vasco y sus órganos.

g) El Boletín Oficial del País Vasco.

Artículo 6. – Distribución de funciones y áreas de actuación.

Sin perjuicio de las competencias que atribuyen al Lehendakari y al Gobierno los artículos 8 y 16 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, y las que se asignen al Vicepresidente, los Departamentos citados en el artículo 2 ejercerán, bajo la dirección de sus titulares y en sus respectivas áreas de actuación, las funciones que se determinan en los artículos siguientes.

Artículo 7. – Departamento de Hacienda y Administración Pública.

1. Al Departamento de Hacienda y Administración Pública le corresponden las siguientes funciones y áreas de actuación:

a) Dirección, elaboración, gestión general, seguimiento y control de los Presupuestos Generales de la

jarraipena eta arta eramatea ere; eta bai aurrekontuei buruzko programazioa ere.

b) Barneko ekonomi kontrola, kontabilitatea eta erantzukizun kontableak.

c) Finantza politika eta finantza erakundeekiko harremanak.

d) Diruzaintza, zorrak egitea eta bermeak ematea.

e) Ondarea eta kontratazioa.

f) Ekonomi Ituna, Estatuarentzako kupoak eta lurralde historikoen ekarpenak.

g) Eskualdaketaren gai diren eskuduntza eta/edo zerbitzuen baloraketa; eta Estatuarekiko finantza-fluxuak finkatzea, Gizarte Segurantzaren finantzaketari dagokionez.

h) Zergen administrazioa eta ekonomi-administrazio mailako murtziloak.

i) Funtzio publikoa, administrazio antolamendua eta informaziorako, araubide juridikorako eta langileen ordainketarako sistema.

j) Toki Administrazioaren arloan legeek eta araudiek Jaurilaritzari egozten dizkioten egitekoak burutzea.

k) Argitalpenak.

l) Hainbat sailetarako diren zerbitzuak.

m) Sailari atxikita dauden erakunde autonomoak, Zuzenbide Pribatupeko ente publikoak eta baltzu publikoak gidatzea, legeek eta arautegiek ezartzen dutenaren arabera.

n) Legeek eta arautegiek eman diezazkioten gainontzeko ahalmenak.

2. Sail honen esku gelditzen da Administrazioa eraberritzeko eta erreformatzeko ihardunbidea bultzatzea, gidatzea eta koordinatzea. Horrexetarako sortuko da, hain zuzen, Administrazioa Eraberritzeko Bulegoa, honako eginkizun hauek izango dituela:

a) Behar diren legeen erreforma gertatu Administrazioa arrazoizkotzeko eta hobetzeko. Lege horien arautegi mailako garapena bultzatu.

b) Antolamendu, zerbitzuaren kalitate, giza baliabide, ekonomi kudeaketa, merkatuko indarrak sartze eta bidezkotzat jotzen diren gainerako arloetan arrazoizkotzeko eta hobetzeko sailarteko planak gertatzea, koordinatzea eta suspertzea.

c) Barne egituraketari, erakunde mailako enteak sortzeari edo baliabideen plangintzari buruz sailek gauza ditzaten ihardueren berri ematea.

3. Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea / Instituto Vasco de Administración Pública (HAEE/IVAP) administrazio mailako erakunde autonomoa eta Eusko Jaurilaritzaren Informatika Elkarte, S.A. / Sociedad Informática del Gobierno Vasco (EJIE) baltzu publiko sail honi atxikitzen zaizkio.

8. *atala.*– Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila.

1. Honako egiteko eta ihardun-arlo hauek dagozkio Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailari:

a) Aginte Judizialarekiko harremanak zaintzea.

Comunidad Autónoma, así como la programación presupuestaria relativa a los mismos.

b) Control económico interno, contabilidad y responsabilidades contables.

c) Política financiera y relaciones con las entidades financieras.

d) Tesorería, endeudamiento y prestación de garantías.

e) Patrimonio y contratación.

f) Concierto Económico, cupos al Estado y aportaciones de los Territorios Históricos.

g) Valoración de competencias y/o servicios objeto de transferencia, así como determinación de los flujos financieros con el Estado en relación a la financiación de la Seguridad Social.

h) Administración tributaria y reclamaciones económico/administrativas.

i) Función pública, organización administrativa y sistema de información, régimen jurídico y retributivo del personal.

j) Ejercer las funciones que las Leyes y los reglamentos atribuyen al Gobierno en materia de Administración Local.

k) Publicaciones.

l) Servicios multidepartamentales.

m) Dirigir, de acuerdo con las Leyes y los reglamentos, los organismos autónomos, entes públicos de derecho privado y sociedades públicas adscritos al Departamento.

n) Las demás facultades que le atribuyan las Leyes y los reglamentos.

2. Corresponde también a este Departamento el impulso, dirección y coordinación del proceso de modernización y reforma de la Administración. A tal fin, se crea, adscrita al mismo, la Oficina para la Modernización Administrativa que tendrá atribuidas las funciones siguientes:

a) La preparación de las reformas legislativas precisas para la racionalización y mejora de la Administración, así como el desarrollo reglamentario de aquéllas.

b) La elaboración, coordinación e impulso de planes interdepartamentales de racionalización y mejora en áreas de organización, calidad de servicio, recursos humanos, gestión económica, introducción de fuerzas de mercado y en las demás que se estimen necesarias.

c) Informar sobre las actuaciones departamentales relativas a la estructuración interna, creación de entes institucionales o planificación de efectivos.

3. Están adscritos a este Departamento el organismo autónomo administrativo Herri Ardularitzaren Euskal Erakundea / Instituto Vasco de la Administración Pública (H.A.E.E./I.V.A.P.) y la sociedad pública Eusko Jaurilaritzaren Informatika Elkarte, S.A. / Sociedad Informática del Gobierno Vasco (E.J.I.E.).

Artículo 8.– Departamento de Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social.

1. Al Departamento de Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social le corresponden las siguientes funciones y áreas de actuación:

a) Atender las relaciones con el Poder Judicial.

b) Balibideak jartzea, Justizi Administrazioak ihardun dezan.

c) Zigor establezimenduak eta, bereziki, horien antolaera, iharduera eta zigorre buruzko legeak betezea, Zigor Administrazioako organo nagusiei legeek ematen dizkieten eskuduntzak erabiltzea bereganatuz.

d) Notariak eta jabego erregistratzaileak izendatzea.

e) Elkarte, iraskunde eta elkargo profesionalei buruzko erregimen orokorra, sailek, beren eremu barruan, horiekiko izan ditzaten harremanen kaltetan gabe.

f) Giza Eskubideen sustapena.

g) Euskararen erabilpena arauzkotzeko azaroaren 24ko 10/1982 oinarrizko Legeak herritarrei ematen dizkien eskubideak erabili ahal izatea bermatzea Justizi Administrazioan.

h) Ekonomi plangintza.

i) Azterlan eta metodo ekonomikoak. Ekonomiaren koituntura eta aurrikuspena.

j) Estatistika.

k) Lan arloari buruzko legeek, lan harremanei buruz ezartzen dutena burutzea.

l) Enplegu politika eta enplagurako gaitzea.

m) Gizarte ekonomia: kooperatibak eta akziokako lan baltzuak.

n) Gizarte ongizatea.

o) Drogamenpekotasunak.

p) Giarte prebisorako erakundeak.

q) Gizarte Segurantzaren zerbitzuen zuzendaritza, antolaketa eta administrazioa egitea eta horren araubide ekonomikoa kudeatzea.

r) Segurtasuna eta higiena lanean.

s) Sailari atxikita dauden erakunde autonomoak, Zuzenbide Pribatupeko ente publikoak eta baltzu publikoak gidatzea, legeek eta arautegiek ezartzen dutenaren arabera.

t) Legeek eta arautegiek eman diezazkioten gainontzeko ahalmenak.

2. Honako erakunde autonomo hauek Sail honi atxikita geldituko dira: Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística (EEE/IVE), Lanerako Seguratasun eta Osasunerako Euskal Erakundea (OSALAN), Trebaketa eta enplegua sustatzeko baltzu publikoa (EGAILAN).

9. atala. - Herrizaingo Saila.

1. Honako egiteko eta ihardun-arlo hauek dagozkio Herrizaingo Sailari:

a) Euskal Autonomi Elkarteko Ertzaintza.

b) Hauteskunde administrazioa.

c) Herri babesa.

d) Euskal Autonomi Elkarteko errepideetatiko gurdunen trafikoko polizia.

e) Jokoa, posturak eta ikuskizunak.

f) Transmisioak eta komunikazioak.

g) Ibilgailuak.

h) Sailari atxikita dauden erakunde autonomoak,

b) Provisión de medios para el funcionamiento de la Administración de Justicia.

c) Establecimientos penitenciarios, en especial su organización, funcionamiento y ejecución de la legislación penitenciaria, asumiendo el ejercicio de las facultades que ésta atribuya a los órganos centrales de la Administración penitenciaria.

d) Nombramiento de Notarios y Registradores de la Propiedad.

e) Régimen general de Asociaciones, Fundaciones y Colegios Profesionales, sin perjuicio de las relaciones que, respecto a estos, mantengan los Departamentos en su ámbito sectorial.

f) Promoción de los Derechos Humanos.

g) Garantizar, en el ámbito de la Administración de Justicia, el ejercicio de los derechos reconocidos a los ciudadanos por la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del Euskera.

h) Planificación económica.

i) Estudios y métodos económicos. Coyuntura y previsión económica.

j) Estadística.

k) Ejecución de la legislación laboral en materia de relaciones laborales.

l) Política de empleo y formación para el empleo.

m) Economía social: cooperativas y sociedades anónimas laborales.

n) Bienestar social.

o) Drogodependencias.

p) Entidades de previsión social.

q) Dirección, organización y administración de los servicios de la Seguridad Social y gestión de su régimen económico.

r) Seguridad e higiene en el trabajo.

s) Dirigir, de acuerdo con las Leyes y los reglamentos, los organismos autónomos, entes públicos de derecho privado y las sociedades públicas adscritos o dependientes del Departamento.

t) Las demás facultades que le atribuyan las Leyes y los Reglamentos.

2. Están adscritos a este Departamento los organismos autónomos Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística (E.E.E./I.V.E.) y el Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales - OSALAN y la sociedad pública Sociedad Pública para la formación y el empleo - EGAILAN.

Artículo 9. - Departamento de Interior.

1. Al Departamento de Interior le corresponden las siguientes funciones y áreas de actuación:

a) Policía de la Comunidad Autónoma.

b) Administración electoral.

c) Protección civil.

d) Policía de tráfico rodado por las vías de comunicación de la Comunidad Autónoma.

e) Juego, apuestas y espectáculos.

f) Transmisiones y comunicaciones.

g) Parque móvil.

h) Dirigir, de acuerdo con las Leyes y los reglamentos,

Zuzenbide Pribatupeko ente publikoak eta baltzu publikoak gidatzea, legeek eta arautegiek ezartzen dutenaren arabera.

i) Legeek eta arautegiek eman diezazkioten gainontzeko ahalmenak.

2. Euskal Herriko Poliziaren Ikastegia erakunde autonomoa sail honi atxikitzen zaio.

10. *atala.* - Industri, Nekazaritza eta Arrantza Saila.

1. Honako egiteko eta ihardun-arlo hauek dagozkio Industri, Nekazaritza eta Arrantza Sailari:

- a) Industri politika.
- b) Teknologi berrikuntza.
- c) Meategiak.
- d) Energia.
- e) Artesautza sustatzea eta indartzea.
- f) Telekomunikazioak.
- g) Kanpo merkataritzaren arloko iharduerak finkatzea, gidatzea eta koordinatzea.
- h) Nekazaritza eta landa ingurunearen sustapena eta antolamendua.
- i) Baliabide naturalak antolatzea, baso eta izadi zaintzako zerbitzua.
- j) Abeltzaintza eta mendiak.
- k) Kontinenteko ehiza eta arrain aberastasuna ustiatzeko araubidea.
- l) Arrantza.
- m) Nekazaritza, arrantza eta elikagaien industriak eta komertzializazioa.
- n) Nekazaritzako elikagai politika: nekazaritza-elikagaiak sustatzea, tipifikatzea, horiei jatorri izena ematea eta kalitatea zaintzea. Mahastizaintza eta enologia.
- o) Nekazaritza, itsaso eta arrantzarako gaitzea.
- p) Nekazaritza eta ozeano ikerketa, dekretu honetako 11 b) atalean ezartzen denaren kaltetan gabe.

q) Sailari atxikita dauden erakunde autonomoak, Zuzenbide Pribatupeko ente publikoak eta baltzu publikoak gidatzea, legeek eta arautegiek ezartzen dutenaren arabera.

r) Legeek eta arautegiek eman diezazkioten gainontzeko ahalmenak.

2.- Sail honi atxikitako erakunde eta baltzuak: Energiaren Euskal Erakundea / Ente Vasco de la Energía (EEE/EVE) Zuzenbide Pribatupeko ente publikoa, Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua / Sociedad de Promoción y Reconversión Industrial, S.A. (ISEB/SPRI), EUSKALNET, Industri Lurraren Sustapen eta Gestiorako Elkartea, A.B. / Promoción y Gestión de Suelo Industrial, S.A. (PROGESINSA) eta Arrantzuarekiko Zientzia eta Teknika Iraskundea, A.B. / Instituto para la Ciencia y la Tecnología Pesquera, S.A. (AZTI) baltzu publikoak.

11. *atala.* - Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

Honako egiteko eta ihardun-arlo hauek dagozkio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari:

a) Autonomi Estatutuan ezartzen diren eskuduntzak, bai erregimen orokorpekoak eta bai erregimen berezi-

tos, los organismos autónomos, entes públicos de derecho privado y sociedades públicas adscritos al Departamento.

i) Las demás facultades que le atribuyan las Leyes y los reglamentos.

2. Está adscrito a este Departamento el organismo autónomo Academia de la Policía del País Vasco.

Artículo 10. - Departamento de Industria, Agricultura y Pesca.

Al Departamento de Industria, Agricultura y Pesca le corresponden las siguientes funciones y áreas de actuación:

- a) Política industrial.
- b) Innovación tecnológica.
- c) Minas.
- d) Energía.
- e) Fomento y promoción de la artesanía.
- f) Telecomunicaciones.
- g) Fijación, dirección y coordinación de las líneas de actuación en materia de comercio exterior.
- h) Promoción y ordenación agraria y del medio rural

i) Ordenación de recursos naturales y servicio forestal y de conservación de la naturaleza.

j) Ganadería y montes.

k) Régimen de aprovechamiento de la riqueza cinegética y piscícola continental.

l) Pesca.

m) Industrias y comercialización agrarias, pesqueras y alimentarias.

n) Política agroalimentaria: promoción, tipificación, denominación de origen y control de calidad de productos agroalimentarios. Viticultura y enología.

o) Formación agraria y náutico pesquera.

p) Investigación agraria y oceanográfica, sin perjuicio de lo previsto en el artículo 11.b) del presente Decreto.

q) Dirigir, de acuerdo con las Leyes y los reglamentos, los organismos autónomos, entes públicos de derecho privado y las sociedades públicas adscritos o dependientes del Departamento.

r) Las demás facultades que le atribuyan las Leyes y los reglamentos.

2. Están adscritos a este Departamento el ente público de derecho privado Energiaren Euskal Erakundea / Ente Vasco de la Energía (E.E.E./E.V.E.), y las sociedades públicas Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua / Sociedad de Promoción y Reconversión Industrial, S.A. (I.S.E.B./S.P.R.I.), EUSKALNET, Industri Lurraren Sustapen eta Gestiorako Elkartea, A.B. / Promoción y Gestión de Suelo Industrial, S.A. (PROGESINSA), y la Sociedad Pública Arrantzuarekiko Zientzia eta Teknika Iraskundea, A.B. / Instituto para la Ciencia y la Tecnología Pesquera, S.A. (A.Z.T.I.).

Artículo 11. - Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

Al Departamento de Educación, Universidades e Investigación le corresponden las siguientes funciones y áreas de actuación:

a) Las facultades que se derivan del Estatuto de Autonomía en relación a las enseñanzas tanto de régi-

pekoak ere, etapak eta mailak barne sartuz; eta goi mailako hezkuntza.

b) Zientzi alorreko politika; teoria eta aplikazio mailako ikerketak sustatzea eta koordinatzea.

c) Sailari atxikita dauden erakunde autonomoak, Zuzenbide Pribatupeko ente publikoak eta baltzu publikoak gidatzea, legeek eta arautegiek ezartzen dutenaren arabera.

d) Legeek eta arautegiek eman diezazkioten gainontzeko ahalmenak.

12. atala. - Osasun Saila.

1. Honako egiteko eta ihardun-arlo hauek dagozkio Osasun Sailari:

a) Osasunetaren plangintza eta antolamendua.

b) Osasun publikoa eta elikadura-higienea.

c) Zainketa epidemiologikoa.

d) Farmazien eraketa.

e) Sailari atxikita dauden erakunde autonomoak, Zuzenbide Pribatupeko ente publikoak eta baltzu publikoak gidatzea, legeek eta arautegiek ezartzen dutenaren arabera.

f) Legeek eta arautegiek eman diezazkioten gainontzeko ahalmenak.

2. Servicio Vasco de Salud - Osakidetza administrazio mailako erakunde autonomoa eta Goi Mailako Osasun-Teknologia, S.A. baltzua publikoa sail honi atxikita egongo dira.

13. atala. - Kultura Saila.

1. Honako egiteko eta ihardun-arlo hauek dagozkio Kultura Sailari:

a) Kirolak.

b) Gazteria eta gizarte garapena.

c) Historia- eta arte-ondarearen kudeaketa eta zainketa; museo, liburutegi eta artxibategiak.

d) Hizkuntza politika.

e) Euskararen sustapena.

f) Arte eta kultura mailako ihardunak eta horien hedapena.

g) Gizarte komunikabideak; irradi kontzesioak eta frekuentzien esleipena.

h) Sailari atxikita dauden erakunde autonomoak, Zuzenbide Pribatupeko ente publikoak eta baltzu publikoak gidatzea, legeek eta arautegiek ezartzen dutenaren arabera.

i) Legeek eta arautegiek eman diezazkioten gainontzeko ahalmenak.

2. Helduen Alfabetatze Berreuskalduntze Erakundea / Instituto de Alfabetización y Reeskaldunización de adultos (HABE) eta Euskal Kirol Institutua / Instituto Vasco de Educación Física (EKI/IVEF) administrazio mailako erakunde autonomoak, eta Euskal Irrati Telebista / Radio Televisión Vasca (EITB) Zuzenbide Pribatupeko ente publikoa, eta Euskadiko Orkestra, A.B. / Orquesta de Euskadi, S.A. eta Euskal Media, S.A. baltzu publikoak sail honi atxikita egongo dira.

14. atala. - Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila.

1. Honako egiteko eta ihardun-arlo hauek dagozkio

men general como especial con inclusión de sus diversas etapas y niveles, y la educación superior.

b) Política científica; impulso y coordinación de la investigación teórica y aplicada.

c) Dirigir, de acuerdo con las Leyes y los reglamentos, los organismos autónomos, entes públicos de derecho privado y sociedades públicas adscritos al Departamento.

d) Las demás facultades que le atribuyan las Leyes y los reglamentos.

Artículo 12. - Departamento de Sanidad.

1. Al Departamento de Sanidad le corresponden las siguientes funciones y áreas de actuación:

a) Planificación y ordenación sanitaria.

b) Salud pública e higiene alimentaria.

c) Vigilancia epidemiológica.

d) Ordenación farmacéutica.

e) Dirigir, de acuerdo con las Leyes y los reglamentos, los organismos autónomos, entes públicos de derecho privado y las sociedades públicas adscritos o dependientes del Departamento.

f) Las demás facultades que le atribuyan las Leyes y los reglamentos.

2. Están adscritos a este Departamento el organismo autónomo administrativo Servicio Vasco de Salud - Osakidetza y la sociedad pública Tecnología Sanitaria de Euskadi, S.A

Artículo 13. - Departamento de Cultura.

1. Al Departamento de Cultura le corresponden las siguientes funciones y áreas de actuación:

a) Deportes.

b) Juventud y desarrollo comunitario.

c) Gestión y protección del Patrimonio Histórico Artístico; museos, bibliotecas y archivos.

d) Política lingüística.

e) Promoción del euskera.

f) Actividades artísticas y culturales y su difusión.

g) Medios de comunicación social; concesión de emisoras y asignación de frecuencias.

h) Dirigir, de acuerdo con las Leyes y los reglamentos, los organismos autónomos, entes públicos de derecho privado y sociedades públicas adscritos o dependientes del Departamento.

i) Las demás facultades que le atribuyan las Leyes y los reglamentos.

2. Están adscritos a este Departamento los organismos autónomos administrativos, Helduen Alfabetatze Berreuskalduntzerako Erakundea / Instituto de Alfabetización y Reeskaldunización de adultos (H.A.B.E.) y Euskal Kirol Institutua / Instituto Vasco de Educación Física (E.K.I./I.V.E.F.), el ente público de derecho privado Euskal Irrati Telebista / Radio Televisión Vasca (E.I.T.B.), y las sociedades públicas Euskadiko Orkestra, A.B. / Orquesta de Euskadi, S.A. y Euskal Media, S.A.

Artículo 14. - Departamento de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente.

1. Al Departamento de Urbanismo, Vivienda y

Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailari:

- a) Lurraldea eta itsasertzak antolatzea.
- b) Hirigintza.
- c) Etxebizitza.
- d) Arkitektura.
- e) Ingurugiroa.
- f) Sailari atxikita dauden erakunde autonomoak, Zuzenbide Pribatupeko ente publikoak eta baltzu publikoak gidatzea, legeek eta arautegiek ezartzen dutenaren arabera.
- g) Legeek eta arautegiek eman diezazkioten gainontzeko ahalmenak.

2.- Euskadiko Etxebizitza eta Lurra Elkartea / Sociedad de Vivienda y Suelo de Euskadi, S.A. (VISESA) eta Industria Hondakinentzako Bateango Enularaztegia, A.B. / Sociedad Promotora para la Instalación de un Tratamiento Centralizado de Residuos Industriales, S.A. (IHOBE) baltzu publikoak sail honi atxikita egongo dira.

15. atala.- Garraio eta Herrilan Saila.

1. Honako egiteko eta ihardun-arlo hauek dagozkio Garraio eta Herrilan Sailari:

- a) Urak.
- b) Trenbideak.
- c) Bide sarea.
- d) Lurretikako, itsasotikako, ibaietikako eta kabletikako garraioak.
- e) Heliportuak eta aireportuak.
- f) Portuak eta itsas arazoak.
- g) Kanalak eta ureztaketak.
- h) Metereologia.
- i) Sailari atxikita dauden erakunde autonomoak, Zuzenbide Pribatupeko ente publikoak eta baltzu publikoak gidatzea, legeek eta arautegiek ezartzen dutenaren arabera.
- j) Legeek eta arautegiek eman diezazkioten gainontzeko ahalmenak.

2. Eusko Trenbideak / Ferrocarriles Vascos, S.A. (ET / FF.VV.) eta Bilboko Metrorako Ingeniaritza, A.B. / Ingeniería para el Metro de Bilbao, S.A. (IMEBISA) baltzu publikoak sail honi atxikita egongo dira.

16. atala.- Merkataritza, Kontsumo eta Turismo Saila.

1. Honako egiteko eta ihardun-arlo hauek dagozkio Merkataritza, Kontsumo eta Turismo Sailari:

- a) Merkataritza, 10.g) atalean jasotakoaren arabera.
- b) Merkataritza, Industria eta Itsasketa Bazkondeak.
- c) Prezioen politika.
- d) Turismoa.
- e) Kontsumoa.
- f) Sailari atxikita dauden erakunde autonomoak, Zuzenbide Pribatupeko ente publikoak eta baltzu publikoak gidatzea, legeek eta arautegiek ezartzen dutenaren arabera.

Medio Ambiente le corresponden las siguientes funciones y áreas de actuación:

- a) Ordenación del territorio y del litoral.
- b) Urbanismo.
- c) Vivienda.
- d) Arquitectura.
- e) Medio Ambiente.
- f) Dirigir, de acuerdo con las Leyes y los reglamentos, los organismos autónomos, entes públicos de derecho privado y las sociedades públicas adscritos o dependientes del Departamento.
- g) Las demás facultades que le atribuyan las Leyes y los reglamentos.

2. Están adscritas a este Departamento las sociedades públicas Euskadiko Etxebizitza eta Lurra Elkartea / Sociedad de Vivienda y Suelo de Euskadi, S.A. (V.I.S.E.S.A.) e Industria Hondakinentzako Bateango Enularaztegia, A.B. / Sociedad Promotora para la Instalación de un Tratamiento Centralizado de Residuos Industriales, S.A. (IHOBE).

Artículo 15.- Departamento de Transportes y Obras Públicas.

1. Al Departamento de Transportes y Obras Públicas le corresponden las siguientes funciones y áreas de actuación:

- a) Aguas.
- b) Ferrocarriles.
- c) Red viaria.
- d) Transportes terrestres, marítimos, fluviales y por cable.
- e) Helipuertos y aeropuertos.
- f) Puertos y asuntos marítimos.
- g) Canales y Regadíos.
- h) Meteorología.
- i) Dirigir, de acuerdo con las Leyes y los reglamentos, los organismos autónomos, entes públicos de derecho privado y las sociedades públicas adscritos o dependientes del Departamento.
- j) Las demás facultades que le atribuyan las Leyes y los reglamentos.

2. Están adscritas a este Departamento las sociedades públicas Eusko Trenbideak / Ferrocarriles Vascos, S.A. (E.T./FF.VV.) y Bilboko Metrorako Ingeniaritza, A.B. / Ingeniería para el Metro de Bilbao, S.A. (IMEBISA).

Artículo 16.- Departamento de Comercio, Consumo y Turismo.

Al Departamento de Comercio, Consumo y Turismo le corresponden las siguientes funciones y áreas de actuación:

- a) Comercio, con arreglo a lo previsto en el artículo 10.g).
- b) Cámaras de Comercio, Industria y Navegación.
- c) Política de Precios.
- d) Turismo.
- e) Consumo.
- f) Dirigir, de acuerdo con las leyes y los reglamentos, los organismos autónomos, entes públicos de derecho privado y sociedades públicas adscritos al Departamento.

g) Legeek eta arautegiek eman diezazkioten gainontzeko ahalmenak.

GEHIGARRIZKO XEDAPENETATIK LEHENENGOA

1. Lehendakaritzaren Idazkaritzak atxikirik zituen idazkaritza nagusiek, Idazkaritza Nagusi Teknikoak, zuzendaritzek eta administrazio arloko gainerako organoek eta unitateek osatuko dute Jaurlaritzaren Lehendakaritza. Dekretu honen bidez, 2. atalean jasotako saillei izendatzen zaizkienak salbuetsi egingo dira.

2. Jaurlaritzaren Lehendakaritzako egitura organikoa onartuko duen Dekretuak ezarriko duenaren kaltetan gabe, Jaurlaritzaren lehendakariordeak, Lehendakaritzaren Idazkaritzaren egitura eta iharduna finkatzeari buruzko apirilaren 23ko 258/1991 Dekretuko 2. atalak Lehendakaritzaren idazkariari egozten dizkion egitekoak bereganatuko ditu.

GEHIGARRIZKO XEDAPENETATIK BIGARRENA

1. Araubide Juridikorako eta Autonomi Garapenerako Sailordetza, bere zuzendaritzekin batera, eta Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritza, biak ere ezabatu egiten den Lehendakaritza, Lege Araubide eta Autonomi Garapenerako Sailaren egituran zeudenak, eta bai horien menpe egon diren administrazio mailako unitateak ere, Jaurlaritzaren Lehendakariordetzan sartuko dira.

2. Jaurlaritzaren Lehendakariordetzako organoen egitura eta egitekoei buruzko erabakia hartu artean, Ogasun eta Herri Administrazio Saileko Zerbitzu Zuzendaritzak beteko ditu, organo horiei dagokienez, orain arte Lehendakaritza, Lege Araubide eta Autonomi Garapenerako Saileko Zerbitzu Zuzendaritzak betetzen zituen egitekoak.

GEHIGARRIZKO XEDAPENETATIK HIRUGARRENA

1. Orain arte Lehendakaritza, Lege Araubide eta Autonomi Garapenerako Sailari eta Ekonomi eta Ogasun Sailari atxikita egon diren sailordetzek, zuzendaritzek eta administrazio mailako unitateek osatuko dute Ogasun eta Herri Administrazio Saila. Dekretu honen bidez Jaurlaritzaren Lehendakaritzari, Lehendakariordetzari eta beste sail batzuei atxikitzen zaizkienak salbuetsi egingo dira.

2. Administrazioa Eraberritzeko Bulegoa, arauz finka dadinaren kaltetan gabe, lagun gutxiak osatuko du. Proiektukako kudeaketa izango da lanerako erabiliko duen metodoa.

GEHIGARRIZKO XEDAPENETATIK LAUGARRENA

Orain arte Zuzentza Sailaren eta Lan eta Gizarte Segurantzza Sailaren menpe egon diren sailordetzek, zuzendaritzek eta administrazio mailako unitateek osatuko dute Justizi, Ekonomi, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila. Horietaz gain, honako hauek: Droga Gaierako Idazkaritza Nagusiak, eta horren menpeko administrazio mailako unitateek, orain arte Lehendaka-

g) Las demás facultades que le atribuyan las leyes y los reglamentos.

DISPOSICIÓN ADICIONAL PRIMERA

1. La Presidencia del Gobierno estará integrada por las Secretarías Generales, la Secretaría General Técnica, las Direcciones y demás órganos y unidades administrativas adscritos a la extinta Secretaría de la Presidencia, salvo las que por el presente Decreto se asignen a alguno de los Departamentos previstos en el artículo 2.

2. Sin perjuicio de lo que en su momento se establezca en el Decreto que apruebe la estructura orgánica de la Presidencia del Gobierno, el Vicepresidente del Gobierno asumirá las funciones atribuidas al Secretario de la Presidencia por el Decreto 258/1991, de 23 de abril, por el que se determinan la estructura y el funcionamiento de la Secretaría de la Presidencia.

DISPOSICIÓN ADICIONAL SEGUNDA

1. La Viceconsejería de Régimen Jurídico y Desarrollo Autonómico, con sus Direcciones, y la Dirección de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento del extinto Departamento de Presidencia, Régimen Jurídico y Desarrollo Autonómico y las unidades administrativas dependientes de las mismas se integrarán en la Vicepresidencia del Gobierno.

2. En tanto se determine lo oportuno en relación con la estructura y funciones de los órganos integrados en la Vicepresidencia del Gobierno, la Dirección de Servicios del Departamento de Hacienda y Administración Pública ejercerá con respecto a los mismos las funciones que venía desempeñando la Dirección de Servicios del extinto Departamento de Presidencia, Régimen Jurídico y Desarrollo Autonómico.

DISPOSICIÓN ADICIONAL TERCERA

1. El Departamento de Hacienda y Administración Pública estará integrado por las Viceconsejerías, Direcciones y unidades administrativas adscritas a los extintos Departamentos de Presidencia, Régimen Jurídico y Desarrollo Autonómico y de Economía y Hacienda, salvo las que por el presente Decreto se asignen a la Presidencia del Gobierno, a la Vicepresidencia y a otros Departamentos.

2. Sin perjuicio de lo que reglamentariamente se determine, la Oficina para la Modernización Administrativa estará integrada por un equipo reducido de personas. Su método de trabajo será la gestión por proyectos.

DISPOSICIÓN ADICIONAL CUARTA

El Departamento de Justicia, Economía, Trabajo y Seguridad Social estará integrado por las Viceconsejerías, Direcciones y unidades administrativas de los extintos Departamentos de Justicia y de Trabajo y Seguridad Social, por la Secretaría General de Drogodependencias de la extinta Secretaría de la Presidencia y las unidades administrativas dependientes de la misma, por el Ser-

ritzaren Idazkaritzaren menpe egon direnak hain zuzen; Kupo eta Finantza Ekarpenen Zuzendaritzako Herrialde Politikarako Zerbitzuak eta Ekonomi eta Plangintza Zuzendaritzak, biak ere orain arte Ekonomi eta Ogasun Sailaren menpe egon direnak. Zuzendaritza honetako Programazio Zerbitzuak Ogasun eta Herri Administrazio Sailean jarraituko du.

GEHIGARRIZKO XEDAPENETATIK BOSGARRENA

Industri, Nekazaritza eta Arrantza Saila, orain arte Industri eta Energi Sailaren eta Nekazaritza eta Arrantza Sailaren menpe egon diren sailordetza, zuzendaritza eta administrazio mailako unitateez osatuko da.

GEHIGARRIZKO XEDAPENETATIK SEIGARRENA

Kulturak Sailak, gaurregun dituen organoez gain, orain arte Lehendakartzaren Idazkaritzaren pean egon den Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia, bere zuzendaritzekin, bereganatuko du.

INDARGABETZE XEDAPENA

Euskal Autonomi Elkartearen Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatu eta horien egitekoak eta ihardun-arloak finkatzeari buruzko urriaren 2ko 525/1991 Dekretua eta Ekonomia, Plangintza eta Ingurugiro Saila desagertarazi eta bere egitekoak eta ekintza-eremua banatzeari buruzko otsailaren 23ko 30/1993 Dekretua indargabetu egiten dira.

ALDIBATERAKO XEDAPENA

Dekretu honetako azken xedapenetatik lehenengoan jasotakoa bete dadinerarte eutsi egingo zaie Herrizaingo Sailaren, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren, Osasun Sailaren, Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailaren, Garraio eta Herrilan Sailaren eta Merkataritza, Kontsumo eta Turismo Sailaren egiturak eta egitekoak ezartzen dituzten arau organikoek. Gauza bere gertatuko da ezabatu egiten den Lehendakartzaren Idazkaritzako idazkaritza nagusien, Idazkaritza Nagusi Teknikoaren, sailordetzen eta zuzendaritzen arau organikoekin eta bai dekretu honen bidez ezabatu egin edo egitura berria jaso ondoren sail berriei atxiki zaizkien sailen arau organikoekin ere.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

1. Sailburuek, Jaurlaritzari buruzko Legeko 26.2 atalean xedatutakoaren arabera, lehendakariari aurkeztuko dizkiote euren sailei dagozkien arautegi organikoek buruzko egitasmoak, onarpena eman diezaien. Sailburuei izendatutako ihardun-arlo bakoitzarentzat Jaurlaritzaren programan jasotako helburuei eta programa hori argitu duten irizpideei egokitu zaizkie egitasmoak.

2. Ingurugiroari, ekoindustriari, izadi inguruari, saneamenduari eta urei buruzko eskuduntzak eta egitekoak taxutxeaz Jaurlaritzaren programan jasotakoak hartuko dira kontutan batik bat.

vicio de Política Regional de la Dirección de Cupo y Aportaciones Financieras y la Dirección de Economía y Planificación del extinto Departamento de Economía y Hacienda. El Servicio de programación de esta última Dirección se mantendrá en el Departamento de Hacienda y Administración Pública.

DISPOSICIÓN ADICIONAL QUINTA

El Departamento de Industria, Agricultura y Pesca estará integrado por las Viceconsejerías, Direcciones y unidades administrativas de los extintos Departamentos de Industria y Energía y de Agricultura y Pesca.

DISPOSICIÓN ADICIONAL SEXTA

El Departamento de Cultura estará integrado por sus órganos actuales, así como por la Secretaría General de Política Lingüística, con sus Direcciones, adscrita a la extinta Secretaría de la Presidencia.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Quedan derogados el Decreto 525/1991 de 2 de octubre, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, y el Decreto 30/1993, de 23 de febrero, por el que se extingue el Departamento de Economía, Planificación y Medio Ambiente y se reasignan sus funciones y áreas de actuación.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

En tanto se lleve a efecto lo previsto en la Disposición Final Primera de este Decreto, conservarán su vigencia las normas orgánicas que determinan la estructura y funciones de los Departamentos de Interior, Educación, Universidades e Investigación, Sanidad, Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente, Transportes y Obras Públicas y Comercio, Consumo y Turismo, así como las de las Secretarías Generales, Secretaría General Técnica, Viceconsejerías y Direcciones de la extinta Secretaría de la Presidencia y de los Departamentos suprimidos o reestructurados por el presente Decreto que pasen a integrarse en los nuevos Departamentos creados por el mismo.

DISPOSICIÓN FINAL PRIMERA

1. Los Consejeros, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 26.2 de la Ley de Gobierno, procederán a presentar al Lehendakari, para su aprobación, los proyectos de reglamentos orgánicos de sus respectivos Departamentos, que se adecuarán a los principios inspiradores y a los objetivos previstos en el programa del Gobierno para cada una de las áreas de actuación asignadas a los mismos.

2. Especialmente, se observarán las previsiones del programa de Gobierno en lo relativo a la articulación de las competencias y funciones sobre el medio ambiente, ecoindustria, medio natural, saneamiento y aguas.

3. Halaber, Herri Administrazioa Arrazoizkotzeko eta Hobetzeko Batzordearen Txostenean, 1994ko ekainaren 28an Jaurlaritzaren Kontseiluak onartutakoan, proposaturiko antolamendu-irizpideei lotuko zaizkie aurreko pasarteetan aipatutako egitasmoak.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Dekretu honetan xedatutakoa betetzeko beharrezkoak diren aurrekontu-eragiketak burutuko ditu Ogasun eta Herri Administrazio Sailak.

AZKEN XEDAPENETATIK HIRUGARRENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egun beretik izango du indarra dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 1995eko urtarrilak 3.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

GARRAIO ETA HERRILAN SAILA

37

AGINDUA, 1994ko abenduaren 23koa, Garraio eta Herrilan sailburuarena, Euskal Autonomi Elkartearen portuetako jabetza publikoeko portuguneak norberarentzat erabiltzeagatik edo haren probetxamendu bereziarengatik prezio publikoen zenbatekoa ezartzeko dena.

Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioaren ariel eta prezio publikoei buruzko maiatzaren 31ko 3/1990 Legearen 145. atalak ematen dizkidan ahalmenak erabiliz eta prezio publikoen bidez ordain daitezkeen ondatsun, zerbitzu eta ekintzak ezartzen dituen abenduaren 28ko 337/1990 Dekretuarekin bat, Ekonomi eta Ogasun Sailak espedientearen gaineko aldeko txostena eman eta 1994ko abenduaren 7an Ekonomi Batzordeak izandako bilkuran Akordioa hartuta, hauxe

XEDATU DUT:

1. atala.- Euskal Autonomi Elkartearen portuetako jabetza publikoeko portuguneak norberarentzat erabiltzeagatik edo haien probetxamendu bereziarengatik prezio publikoak, BEZ kanpo, honakoak izango dira:

3. Asimismo, dichos reglamentos seguirán los criterios organizativos propuestos en el Informe de la Comisión para la Racionalización y Mejora de la Administración Pública, aprobado por el Consejo de Gobierno el 28 de junio de 1994.

DISPOSICIÓN FINAL SEGUNDA

El Departamento de Hacienda y Administración Pública realizará las operaciones presupuestarias necesarias para dar cumplimiento a lo dispuesto en este Decreto.

DISPOSICIÓN FINAL TERCERA

El presente Decreto entrará en vigor el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 3 de enero de 1995.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

DEPARTAMENTO DE TRANSPORTES Y OBRAS PÚBLICAS

37

ORDEN de 23 de diciembre 1994, del Consejero de Transportes y Obras Públicas, por la que se fija la cuantía de los precios públicos por utilización privativa o aprovechamiento especial del dominio público portuario en los puertos de titularidad de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

En virtud de las facultades que me confiere el artículo 145 de la Ley 3/1990, de 31 de mayo, de tasas y precios públicos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de acuerdo con el Decreto 337/1990, de 28 de diciembre, por el que se determinan los bienes, servicios y actividades susceptibles de ser retribuidos mediante precios públicos, habiéndose informado favorablemente el expediente correspondiente por el Departamento de Economía y Hacienda, y previo Acuerdo de la Comisión Económica adoptado en su reunión de 7 de diciembre de 1994.

DISPONGO:

Artículo 1.- Los precios públicos por utilización privativa o aprovechamiento especial del dominio público portuario de los puertos de titularidad de la Comunidad Autónoma del País Vasco, sin incluir el I.V.A., serán los siguientes: